

ANIMALIAK EDUKITZEKO ETA BABESTEKO UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA

ZIOEN AZALPENA

Honako Ordenantza hau Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzeko Legeak eta Animaliak babesteari buruzko urriaren 29ko Euskal Autonomi Erkidegoko 6/1993 Legeak eta gainerako xedapen aplikagarriek Udalari emandako ahalmenen indarrez egin da.

Animali mota guztiak edukitzea arautu nahi du, bai laguntzakoena, bai laguntzakoek ez direnena, animalia horien eta pertsonen arteko elkarbizitza eta ingurunearen osasunerako eta pertsona eta ondasunen lasaitasun, osasun eta segurtasunerako izan daitezkeen arriskuak harmonizatuz.

Aldi berean, tratuari, higiene eta elikadurari, babesari, exhibizioari, garraioari eta identifikazioari dagokienez animaliek jaso behar duen gutxieneko arreta arautzen du.

Animaliak denboraldi batez edukitzeko sortzen diren establezimenduek bete behar dituzten arauak ezartzen ditu, baita kontsultategi, klinika eta albatari-ospitalek eta animaliak saltzeko dauden lokalek izan behar dituzten betebeharrak eta ezaugarriak ere.

Azkenik aplika daitezkeen legehauste eta isunak tipifikatzen ditu eta prozedura exekutibo zigortzailea ezartzen du.

I. IDAZPURUA

XEDEA ETA APLIKAZIO-ESPARRUA

1. ARTIKULUA.- Ordenantza honen geografia-esparrua Ordiziako udalerrira osoa da.

2. ARTIKULUA.- Ordenantza honek udalerrian dauden etxabereak eta etxekotuak babesteko arauak ezartzea du helburu, horien eta pertsonen arteko elkarbizitza harmonizatuz.

Ordenantza honen aplikaziotik at eta berezko araudia izango dute honako hauek:

- a) ehizak.
- b) arrantzak.
- c) inguru naturalean basa-fauna babestu eta zaintzeak.
- d) zezenek.
- e) hornidurarako animaliak haztea, abeltzantza alegia.



II. IDAZPURUA

IZAERA OROKORREKO ARAUAK

3. ARTIKULUA.-

1) Ordenantza honen ondorioetarako, etxe-animalia da bizitzeko gizakiaren beharra duena, bere etxean bizi ohi dena eta irabazi-asmorik gabea.

2) Animalia abandonatuztat joko da jaberik ez duena, ez etxe ezagunik, ezta datu hauek ezagutzeko bide ematen duen identifikazio-sistematik ere, eta erroldan sartu gabe dagoena.

Onimalia abandonatuztat joko da baita, erroldan sartuta egon arren, araudi honek ezartzen dituen epetan desagertu dela salatzen ez bada, edo kalean zehar jaberik gabe ibiltzen dena.

4. ARTIKULUA.- Etxebizitza partikularretan laguntzako etxe-animaliak edukitzeko baimena orohar ematen da, betiere etxearen bizi-baldintzak, instalazioen egokitasunak eta animalia kopuruak ahalbidetzen duen neurrian, bai higijene-osasun ikuspuntutik, bai bizilagunentzako, edo animalia-arentzat berarentzat arrisku edo kalterik ez dagoen aldetik, berezko arriskuetatik eratorritakoak izan ezik.

Debekatuta dago balkoi, garaje, pabeloi, soto, ganbara, lorategi edo antzeko beste lokal batean animaliak edukitzea edo egonaraztea, beren usain, buila, ulu edo zaunkengatik bizilagun edo kaletarrei kalteak sortzen dizkienean behintzat.

5. ARTIKULUA.- Animalien jabeek behartuak daude ondo egon daitezen beharrezko elikadura eman eta arreta jartzera, bai beren gaisotasun eta sendaketetan, baita agintariek ezartzen dituzten neurri administratibo eta sanitario prebentiboak aplikatzerakoan ere. Aldi berean, espezie bakoitzeko berezko eskakizunen arabera bizilekua emango die.

6. ARTIKULUA.- Albaitari kolegiatu batek animalia bati kutsagarria den gaisotasuna diagnostikatu badio eta haren iritziz akabatu egin behar bada, baimendutako sistema bat erabiliko da eta jabeak ordainduko du, debekatuta dago sufrimenduzko heriotza eragiten duen prozedurarik erabiltzea. Gaisotasun kroniko sendaezinak izanik, jabeek behar bezala zainduta ez daudenak ere akabatu egingo dira.

7. ARTIKULUA.- Espreski debekatuta dago:

a) Fabrikazio eta salmenta, biltegi, garraio eta elikagaien erabilerarako lokal edo ibilgailuetan animaliak sartu eta egonaraztea.

b) Jendaurreko ikuskizunak egiten diren lokaletan animaliak sartu eta egonaraztea, baita herri-igeritegietan eta herri-lorategietan (hirikoak edo/eta herrikoak), osasun-lokalak eta antzekoak.

c) Herri-garraio, ohiko linea edo zerbitzu pribatuetan eta bidaiarientzako tokietan animaliak eramatea.

Jendearentzako zabalik dauden gainerako establezimenduek beren iritzira debekatu dezakete animaliak bertan sartu eta egotea, debeku hori sarreran ageriko lekuan jarritz.



Kultur elkarte, aisialdiako, bizilagun guztiek erabiltzeko toki (elikagaiak erabiltzen ez direnean), eta abarretan animaliak sartu eta egotea, erakunde horiek dituzten arauenpean egongo da.

Ezarritakoaz gain, ordea, zakur itsuarrekoekin batera dihoazten itsuek toki, lojamendu, lokal eta garraio publikoetan sartzeko eskubidea izango dute. Itsuak, aldez aurretik eskatuta, animaliaaren zakur itsuarreko izaera egiaztatuko du, baita dagozkion osasun-betebeharrak beteta dituela ere.

d) Ekintza publiko eta pribatu guztiak bertan animaliak akabatzen edo zauritzen badira.

ANIMALIEN ZENTSOA ETA IDENTIFIKAZIOA.

8. ARTIKULUA.- Zakurren eta etorkizunean zehaztu daitezkeen beste laguntzako animalien jabe edo edukizailleek jai edo eskuratu diren hilabetearen barruan Udaletxean zentsatu beharko dituzte, beste erregistro ofizial edo pribatuz gain. Aldi berean, adin horretatik aurrera, araututako eskuzko metodo elektronikoen bidez identifikatu beharko dituzte, animalia bizi den bitartean iraungo duen kode alfanumerikoa emanaz.

Animaliok ezarpen elektronikoen bidez identifikatuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoan zakur-espezietako animalien identifikazioa erregulatzen duen Nekazaritza eta Arrantzako Sailburuaren 1993ko maiatzaren 25eko Aginduak ezarritakoaren arabera.

Udalak Zakurren Zentsoa izango du Gipuzkoako Animalien Identifikaziorako Lurralde Erregistroari dagokionarekin konektatuta egongo dena.

9. ARTIKULUA.- Gainera jabeek osasun-kartila bat eskuratu beharko dute, bertan bere jabe edo titularraren datuak azalduko dira, identifikazioko kode alfanumerikoa eta animaliaaren osasun egoeraren adierazlea, baita espeziea, arraza, sexua, adina, izena eta bere identifikazio zuzenerako beharrezko diren ohar guztiak ere. Era berean, txertoen egunak sartuko dira, egin zituen albaiteru kolejiatuaren identifikazioarekin, parasitoen hilketekin eta gainerako osasun-gorabeherekin. Kartila edo/eta identifikazioa galduz gero, berehala lortu beharko du beste bat.

10. ARTIKULUA.- Animalien heriotza, desagerketa, lekualdaketa eta abarreatatik izandako bajak Udal Administrazioari jakinarazi beharko dizkio animaliaaren jabeak, gertatu den egunetik hasi eta hamar eguneko epean barruan, horretarako osasun-kartila eta salaketaren kopia (egongo balitz) ekarri.

LAGUNTZAKO ANIMALIEI BURUZKO XEDAPEN ESPEZIFIKOAK

11. ARTIKULUA.- Bide publikoetan eta pertsonak ibiltzen diren beste leku batzuetan, zakurrek lepokoa eta uhala eramango dute. Bere izakera eta ezaugarrien arabera, arriskugarriak badira mozalarekin ibili beharko dira zakur guztiak.

12. ARTIKULUA.- Debekatuta dago zakurren gorotzak bide eta plaza publiko, parke, lorategi eta, oro har, apaindura-tokietan zein pertsonak dabilzan lekuetan uztea. Beraz, zakurrak eramaten dituzten pertsonak galtzadara gidatu beharko dituzte, zintarri ondora eta estolderiaren isurbide batetik ahalik eta toki hurbilenera eta gorotzak poltsa iragazkaitz eta itxietan sartu eta zakarrontzira botatu beharko ditu.



Arau hau hausten denean, udaltzainek zakurraren jabe edo edukitzailea animalia-aren gorotzak kentzera behar dezake.

Udalak, bere zerbitzuen bidez, animalien gorpuak jasoko ditu bide publikotik eta ibai-ertzetatik, zerbitzua ezarritako tasen menpe egongo delarik. Lurzoru ez urbanizagarriaren kasuan, lurren jabeek jasoko dituzte.

13. ARTIKULUA.- Animalia abandonatutzat hartuko da jabearen identifikaziorik ez daramana, jabe edo laguntzailerik gabe dabiltzan animalia, eta zentsatua badago, bere jabeak edo baimendutako pertsonak desagertu dela salatzen ez duenean.

14. ARTIKULUA.-

1) Abandonatutako animaliak horretarako dauden udal-zerbitzuek edo hitzartutakoek jasoko dituzte. Harrapaketa eta garraioan erabilitako baliabideek baldintza higieniko-sanitario egokiak edukiko dituzte eta ez die animaliei alferrikako oinazeak jasanaraziko.

2) Aurreko puntuan aipatutako animaliak gutxienez hogeita hamar lanegunetan mantenduko dira zerbitzu edo aterpe horretan. Jabeak berreskuratu nahi badu, jabea dela frogatzeaz gain, animalia-aren mantenu eta gainerako gastuak ordaindu beharko ditu.

Albaitariaren iritziz animalia-aren osasun-, arriskugarritasun- edo oinaze-egoerek hala aholkatzen dutenean epe hori behar denean murriztuko da.

3) Identifikatu gabeko animalia hori erreklamatzeko epea amaitzen denean, segidako neurriak hartu daitezke:

a) Jabetzea.

b) Eskatzen duen herritarrari ematea.

c) animalien babeserako elkarteei edo ikerketarako izaera zientifikoko zentroeiei ematea.

d) eutanasia bidez akabatzea.

4) Animalia identifikatuta badago, jabeari animalia harrapatu dela eta jasotzeko moduan dagoela jakinarazi bazaio, berreskuratzeko zazpi laneguneko epea izango du jasotzeko, horrek sosrtarazitako gastuak ordaindu ondoren. Epe hori jabeak hartu gabe igarotzen bada, aurreko atalean aipatutako irtenbidea emango zaio animalia-ri.

5) Animaliak akabatzeko berehalako zentzu-galtzea dakarren prozedurak erabiliko dira, oinazeak sortu gabe, albaitari baten kontrol eta ardurapean.

15. ARTIKULUA.- Animaliek pertsona eta ondasunetan sor ditzakeen kalteak ekiditeko, herritarrek kaleko edo abandonatutako animaliak non dauden adieraziko die udal zerbitzuei, debekatuta dago uso, ahate eta gainerako espezie basati eta zakur, katu eta abar bezalako kaleko animaliei janaria ematea.

Hiri-habitateko animalia-espezieak kontrolik gabe ugaltzen direnean, bere ugalketa kontrolatzeko beharrezko neurriak hartuko dituzte udal agintariek.

16. ARTIKULUA.- Hozka egiteagatik lesioak sortu dituzten zakur edo katuak albaitariaren eskutan jarriko dira 14 egunez Udala Zerbitzu edo Aterpean aztertu ditzan, medikuak kaltetutako pertsonen geroko tratamendua zehaztu dezan. Animalia horien jabeek animalia erasotzailearen datuak ematera behartuta daude, bai erasotuari edo bere legezko ordezkariari, edo eskatzen duten agintariari.



III. TITULUA

ANIMALIAK ALDI BATEZ EDUKITZEN DITUZTEN ESTABLEZIMENDUENTZAKO ARAUAK.

17. ARTIKULUA.- Titulu honek barne hartzen ditu:

- a) Haztegiak, trebakuntza-zentruak eta egotetxeak.
- b) Animalien saltokiak.
- c) Albaitaritzako kontsultategi, klinika eta ospitaleak.
- d) Behin-behineko iharduerak (zirkuak, zoo ibiltariak,...)

18. ARTIKULUA.- Era honetako iharduerek dagokion udal baimena eduki beharko dute, kasu horietarako Iharduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudiak zehazten duenaren arabera.

HAZTEGIAK, TREBAKUNTZA-ZENTRUAK ETA BEHIN-BEHINEKO EGOTETXEAK.

19. ARTIKULUA.- Animalien haztegi, trebakuntza-zentru eta egotetxeek animalien sarrera eta irteeren Erregistro Liburua izango dute, Osasun Agintari eskudunen eskueran egongo dena, eta hiruhilero Udalari honako datu hauek helaraziko dizkiote: saldutako animaliak eta horien jatorria, espeziea, arraza eta eroslea.

20. ARTIKULUA.- Eraikuntza, instalazio eta ekipoek, garbitasuna ahalbidetzeaz gain, bertan dauden animaliak babestu eta egin beharreko ekintza sanitarioak burutzea erraztuko dute. Halaber, animaliak egoki manipulatzeko eta animalion izaeraren arabera, bizitza-giroa onargarria izatea ziurtatuko dute.

21. ARTIKULUA.- Edateko ura izango dute zentroan dauden pertsona eta animalien kontsumorako, baina instalazioak garbitzeko bestelako urik ere erabili ahal izango da.

22. ARTIKULUA.- Barruko saneamendu-sarea izango dute, neurri zuzentzaile egokienak dituen, sektoreko araudian ezarritakoaren arabera gorotzak eta ur-hondakinak kanporatzea errazteko eta osasun publikoan eta inguruneke higieanean sor daitezkeen arriskuak txikitzeko.

23. ARTIKULUA.- Hergune, lokal eta kaiolak erraz garbi eta desinfekta daitezkeen materialez eta eran egingo dira. Hergune horiek, animalia-aren tamainuaren arabera, horien ongizatea bermatuko duen gutxieneko azalera izango dute.



24. ARTIKULUA.- Lokalak, animaliekin kontaktuan egon daitezkeen lanabesak eta, kasua balitz, animaliok garraiatzeko ibilgailuak garbitzeko eta desinfektatzeko tresnak eta bitartekoak izango dituzte.

25. ARTIKULUA.- 20 animalia bakoitzeko kaiola bat izango dute gutxienez, gaixorik dauden edo egon daitezkeen animaliak isolatzeko, bahitzeko edo garbitzeko, eta erraz garbitu nahiz desinfektatzekoak izango dira.

Halaber, animalien gorpuak eta kutsadura sor ditzaketen gaiak higienikoki suntsitzeko edo kanporatzeko bitarteko egokiak ere izango dituzte.

Albaitari Ikuskatzaile Ofizialek, instalazioak eta bertan dauden animalien egoera ikusita, hautemandako higiezenko eta osasunezko urritasunak konpontzeko beharrezko diren neurriak har ditzatela eskatuko diete ihardueraren titularrei.

ANIMALIEN SALTOKIAK

26. ARTIKULUA.- Animalien saltokiek albaitari aholkularia izango dute, espeziea, arraza, adina, jatorria eta bestelako ohar interesgarriak jasoko dituen animalien sarrera eta irteeren erregistro-liburuaz arduratuko dena. Liburu hori, Udal Agintari Sanitarioen eskueran egongo da eta, hiruhilero, salduriko animalien berri emango zaio Udalari, animalion ezaugarriak eta eroslea zehaztuta.

Animalia biziren bat saltzen duenak dokumentu bat eman beharko dio hartzen duenari. Agiri horrek animalia ezaugarriak, jatorria eta osasun-egoeraren ziurtagiria jasoko ditu.

27. ARTIKULUA.- Animalien saltokiek hersguneak, kaiolak edo edukinontziak izango dituzte, ikusgai dauden animaliak egoera onean edukitzeko modukoak.

28. ARTIKULUA.- Edozein kasutan debekatuta dago fauna babestuko animalien salerosketa.

ALBAITARITZAKO KONSULTATEGI, KLINIKA ETA OSPITALEAK.

29. ARTIKULUA.- Animalia txikiei kontsulta klinikoak eta tratamendu sanitarioak egiten dizkieten anbulategi-izaerako establezimenduak honela sailkatuko dira: Albaitaritzako Kontsultategia, Albaitaritzako Klinika eta Albaitaritzako Ospitalea.

Albaitaritzako kontsultategizat hartuko dira gutxienez harrera-gela eta kontsultarako nahiz sendaketa eta kirurgiako ebakuntza txikietarako beste gela bat dituzten tokiak.

Albaitaritzako klinikatzat hartuko dira gutxienez itxarongela, kontsultagela eta ebakuntza kirurgikoetarako, instalazio erradiologikorako, laborategirako eta bizkortze-aukeretarako erreserbatutako gela dituztenak.



Albaitaritzako ospitaleak klinikarako behar diren baldintzez gain, honako hauek izango ditu: ospitaleratze-gela, eguneko 24 orduetan zaintza sanitarioa ziurtatua duena, eta etengabeko laguntza ospitaleraturiko animaliei.

30. ARTIKULUA.- Establezimendu hauek guztiek Udal Baimena beharko dute eta eraikin isolatuetan edo behetxeetako lonjetan bakarrik kokatu ahal izango dira, Albaitaritzako Ospitaleak izan ezik; izan ere, debekatuta dute beren iharduera etxebizitzarako eraikinen pisuetan burutzea.

31. ARTIKULUA.- Albaitaritzako Ospitaleak etxebizitza guztietatik berezita egongo dira baimena eskuratu ahal izateko. Iharduera horretarako erabiltzen den eraikina itxia izango da eta ospitale-plaza bakoitzeko gutxienez 20 metro karratuko gunea libre izango du.

32. ARTIKULUA.- Debeekatuta dago establezimendu komertzialetan eta horien geletan albaitaritzakontsultak eskaintzea, bai noizik behin, bai akzesorioki, bai aldiro-aldiro, eta bereziki botiketako bulego, janari-denda, ostatu, jatetxe, animalien saltoki eta animalien babeserako elkarte edo erakundeek okupatutako lokaletan.

33. ARTIKULUA.- Ekipamendu eta instalazioek sektoreko arauak beteko dituzte.

BEHIN-BEHINEKO IHARDUERAK.

34. ARTIKULUA.- Era honetako iharduerak burutzeko derrigorrezkoa da uneoro aldi baterako ezartzeko beharrezko udal-baimenak izatea.

35. ARTIKULUA.- Horretaz gain, iharduera finkoen antzeko higieenezko eta osasunezko baldintzak bete beharko dituzte, aldi baterako izateak ezartzen dituen salbuespenekin.

36. ARTIKULUA.- Baimenei nahiz ziurtagiriei buruzko eta ihardueran parte hartzen duten animalien jabetzari, osasunari nahiz jatorriari buruzko agiri guztiak arauzko eran izango dituzte.

IV. TITULUA

ARAU-HAUSTEAK.

37. ARTIKULUA.- Ordenantza honen eraginetarako, arau-hausteak arin, larri eta oso larri gisa sailkatuko dira, honako irizpideok kontuan hartuz: osasunarentzako arriskua, zabarkeria-maila, eragindako kaltearen larritasuna eta berrerortzea.

38. ARTIKULUA.-

Honako hauek izango dira arau-hauste arinak:



- a) Herritarren higie ne edo/eta segurtasun edo/eta lasaitasunerako eragin larririk ez duten Ordenantza honetako betebeharrak ez betetzea.
- b) Laguntzako animaliak zentsu-identifikaziorik gabe edukitzea, baldin eta derrigorrezkoa bada.
- c) Animaliak laguntza eta zaintza egokia eman ezin zaizkien tokietan izatea.
- d) Animaliei tratu txarrak ematea edo bere izaerakoak ez diren jokabide edo ekintzak egitera behartzea.

Honako hauek izango dira arau-hauste larriak:

- a) Animaliak beharrezko elikadurarik edo osasun-laguntzarik gabe eta, higie nezko eta osasunezko ikuspuntutik, egokiak ez diren instalazioetan edukitzea.
- b) Albaitariaren kontrolrik gabe edo animalien Babeserako Legeak edo arautegietan ezarritako baldintzak kontuan hartu gabe, animaliak antzutzea, mutilazioak egitea eta akabatzea.
- c) Txertoak edo derrigorrezko tratamenduak ez ematea.
- d) Animaliak baimenik gabe saltzea.
- e) Establezimenduek animaliak aldi baterako edukitzeari, hazteari edo saltzeari buruzko baldintzak ez betetzea, edo 6/93 Legeak, urriaren 29a, animalien Babeserakoak edo arautegiek ezarritakoak ez betetzea.
- f) Animaliei tratu txarra ematea edo erasotzea, beharrezkoak ez diren oinazeak, lesioak edo mutilazioak eraginez.
- g) Animaliei beharrezkoak ez diren oinaze edo kalteak sortaraz diezazkiekeen substantziak ematea, zuzenean edo janarien bidez.
- h) Kalterik eragin dezaketen animaliak zaintzen eta gordetzen behar hainbateko arretarik ez izatea.
- i) Nabariak eta larriak diren gaitzak eta minak izaki, albaitaritza-sorospen egokirik ez ematea animaliei.
- j) Beharrezko administrazio-baimenik ez duten ikuskizunetan animaliei parte harraraztea.
- k) Erabaki firmearen bidezko zigorra jaso duten hiru arau-hauste arin eginak izatea, zigor-espediente hasi aurreko bi urteetan.

39. artikulua.- Honako hauek izango dira arau-hauste oso larriak:

- a) Animaliak eraso bidez edo substantzia toxikoak emanez hilaraztea.
- b) Laguntzako edo etxe ko animalia bazter uztea.
- c) Animaliei itxurazko ankerkeria, tratu txarra edo oinazea eragiten dieten eszenak zine edo telebistarako grabatzea.
- d) Debe katutako ikuskizunetan animaliei parte harraraztea.



e) Erabaki firmeen bidezko zigorra jaso duten hiru arau-hauste larri eginak izatea, zigor-espedita hasi aurreko bi urteetan.

ZIGORRAK

40. ARTIKULUA.- Egindako arau-haustek kuadro honen arabera zigortuko dira:

- a) Arau-hauste arinak: 30tik 300 eurotara.
- b) Arau-hauste larriak: 300,01etik 1.503 eurotara.
- c) Arau-hauste oso larriak: 1.503,01etik 15.025 eurotara.

41. ARTIKULUA.-

1) Zigor-erabakiak arau-haustearekin zerikusia duten animalien bahiketa aginduko du, animalia-aren gorputz-osotasuna bermatzeko beharrezkoa baldin bada.

Bahituriko animaliak horretarako egokitutako instalazioetan edukiko dira eta hirugarren bati emango zaizkio, eta azken batean akabatu egingo dira.

2) Arau-hauste larri edo oso larriak eginez gero, instalazioei, lokalei edo establezimenduei aldi baterako itxeko agindua eman ahal izango zaie: arau-hauste larrietan gehienez bi urterako eta arau-hauste oso larrietan gehienez lau urterako; animalia gehiago erosteko debekua ere ezarri ahal izango zaie, gehienez ere lau urtez.

3) Oso larritzat jotako eta zigorturiko arau-haustean hiru urte igaro baino lehen berriro eroriz gero, animaliak hazteko, saltzeko, aldi batean edukitzeko eta trebatzeko behar den administrazio-baimena galduko da.

42. ARTIKULUA.-

1) Isunen zenbatekoa neurtzeko eta aurreko artikularen 2. atalean jasotzen diren zigorren iraupena zehazteko, gorabehera hauek hartuko dira kontuan:

- a) Egindako arau-haustek gizartean edo osasunean izan duen garrantzia eta sortu dituen kalteak.
 - b) Legez kanpoko irabazi-asmoa eta arau-haustea eginez lorturiko mozkinen zenbatekoa.
 - c) Arau-haustek behin eta berriz egitea. Arau-haustea behin eta berriro egin dela esaten da, administrazio-bideko erabaki firmez Ordenantza honetan aurrikusten den arau-hausteren bat zigor-espedita hasi aurreko bost urteetan eginda izateagatik zigortzen denean.
 - d) Arau-haustearen erantzukizun maila arintzeko edo larriagotzeko eragin dezakeen beste edozein.
- 2) Zenbait arautan tipifikatutako administrazioarekiko arau-hauste bi edo gehiago osatzen dituzten ekintzak direnean, kopururik haundieneko zigorra jarriko da; espedita izapidetu eta konpontzeko gaitasuna ahalmen zigortzailea duen organoak izango du.

ESKUDUNTZA ZIGORTZAILEA

AZKEN ONARPENA : 1998ko Urtarrilaren 29a



ORDIZIAKO UDALA

43. ARTIKULUA.-

- 1) 6/93 Legean, urriaren 29koa, animaliak babestekoan araututako foru organoen eskunduntza zigortzailearen galerarik gabe, Ordenantza honetan ezarritako arau-haustea Udalak zigortuko ditu.
- 2) Arau-hauste arintzat jotakoak direnean Alkateari dagokio zigorrak ezartzea, Udalari indarrean dagoen legediak ematen dizkion gaitasunen barruan.
- 3) Arau-hauste larritzat jotakoak direnean, Udalbatza Plenoari dagokio. (*)
- 4) Arau-hauste oso larritzat jotakoak direnean, Foru-organo aginpidedunari dagokio.

PROZEDURA ZIGORTZAILEA

44. ARTIKULUA.- Ordenantza honetan aurreikusitako lege-hausteen aurkako isunak ezartzeko prozedura eta ebazpenen aurka tartejar daitezkeen errekurtsioen aurkakoak, indarrean dagoen prozedura administratiboaren araudiak ezarritakoa izango da.

45. ARTIKULUA.- Arau-hauste gehiago izan ez dadin, zigor-espeditentea ireki ondoren, espeditentearen izapidegileak honako bermezko neurri hauek hartu ahal izango ditu:

- a) Animalia bategiaren batek lege honek debekatua duten ekintzaren bat jasan duen susmorik izanez gero, animalia badaezpada bahitzea eta zaintzea.
- b) Instalazioak, lokalak edo establezimenduak badaezpada ixtea.

Bermezko neurriek, beroriek hartzeko zegoen zioak jarraitzen duen arte iraungo dute.

46. ARTIKULUA.-

- 1) Arau-haustea deituztat edo hutsegituztat jotzen diren kasuetan, zigorra ezartzeko ahalmena duen organo administratiboak ekintzen berri emando dio zigor-ekumenari. Ebazpen judizial tinkoa erabakitzen ez den bitartean, ez zaio prozedura zigortzaileari ekingo eta ordurarte etengo da preskripzio-epea.
- 2) Aginpide judizialaren gaitzespenak kanpo utziko du zigor administratiboa.
- 3) Zigor-ekumenak erruztatuarengan erantzukizun penalik ez dagoela ebazpen judizial tinkoz aldarrikatzen duenean, Administrazioak espeditente zigortzailearekin jarraitu dezake, kasu horretan, hark frogatutako gertaeretan oinarriturik.
- 4) Espeditente administratiboaren aginpide inbistituturik parte hartze judiziala baino lehen hartutako bermezko neurriak indarrean iraun dezakete, aginpide judizialek horri buruz espreski adierazten ez duten bitartean.

47. ARTIKULUA.-



- 1) Arau-hauste arinek lau hilera galduko dute indarra; larriek urtebetera eta oso larriek bi urtera.
- 2) Arau-hausteen preskripzio-epea egin den egunetik hasita kontatuko da.
- 3) Kopurua 3.005 euro edo gehiago denean, arau-haustek bost urtera preskribituko dira eta urtebetera, kopuru hori baino gutxiago denean.
- 4) Arau-hausteen preskripzio-epea zigorra ezartzen den ebazpenak tinkotasuna hartzen duen egunetik hasita kontatuko da.

XEDAPEN DEROGATZAILEA

Honako honen aurka datozen Ordenantza, Arautegi edo udal bando guztiak indargabetuta geratzen dira, eta espresuki 1991ko martxoaren 12an behin-betiko onetsitako Etxeko Animaliei buruzko Araudia.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau udalbatza plenoak behin-betiko onartzen duenean, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren jarriko da indarrean.



